

Beste iturrietatik

Ikaskuntzaz ohartzea atzerriko hizkuntzaren eskolan (I)

Artikulu honek bi zati ditu. Aurreneko zatian ibilbide teoriko bat egiten da, hausnarketak, ohartzeak eta metakognizioak atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan daukaten zeresanaren inguruan eta, horrez gain, sakonago aztertzen da ezaugarri horiek eskolan nola sartzten diren eta nolako garrantzia duten estrategia horiek irakasteak eta irakaslearen rolak. Bigarren zatia e-HIZPIDE aldizkariaren hurrengo zenbakian argitaratuko da eta, bertan, ikaskuntzaz nola ohartu lantzeko hainbat proposamen praktiko egiten dira. Hain zuzen ere, honela landuko da ohartze hori: eskolan hausnarketa eginez, norberaren ikas-alorrak erabiliz eta komunikazioa zein hizkuntza bat ikasteak duen esanahiari buruzko eztabaida bultzatzen duten ikus-entzunezko materialak baliatuz.

Gako-hitzak

atzerriko hizkuntzak, estrategia metakognitiboak, hausnarketa, ikaskuntza, ikasteko estrategiak, norberaren ikas-alorra, ohartzea, AH, NIA, PLE

Ikasteko, funtsezko galderak dira hauek:

- Zer ikasi nahi dut edo zer ikasteko beharra daukat?
- Zertarako erabiliko dut ikasitakoa?
- Zer lortuko dut ikasita?
- Nola hobe dezaket nire ikaskuntza?
- Zer zerikusi dauka orain ikasten ari naizenak nire bizitzan gertatzen ari denarekin, nire beharrezanekin, nire egoera edo interesekin?

Hala ere, galdera horiek oharkabean pasatzen zaizkigu askotan, nahiz eta inplizituki gogoan izaten ditugun edozer gauza, edozein lekutan, edozein unetan eta modu informalean ikasten ari garenean.

Egoera desberdina izan ohi da ikaskuntza formalaren testuinguruan, ikaskuntza hori egoera berezi batean egiten baita, hezkuntza-testuinguru jakin baten barruan; esate baterako, ikasgela presentzial batean edo ingurune digitalean. Kasu horretan, ikasten dugunaz ohartzearen kontua –artikuluari hasiera emateko erabili ditugun galderak– modu esplizituan landu daiteke ikasleekin, ikaskuntzari probetxu hobea atera diezaioten, irakasleek, hori lantzeko, ikasgelan denbora eta leku espezifikoak eskaintzen diotelarik.

Askotan ikasle helduak izaten ditugu atzerriko hizkuntzak (AH) ikasten; ikasle horiek normalean ordaindu egiten dute ikasketa horiengatik edo ziurtagiriren bat jasoko dute, eta badakite hizkuntza bat ikasteko ikastaroa egiten ari direla. Zalantzarik gabe, horregatik guztiagatik ohartuko dira ikasteko daudela leku horretan. Beste mota bateko ikasleak ere badaude: ikasten ari diren meta hizkuntzaren herrialdean lan egiteko eta bizitzeko ikasi beharra dutenak. Ikasle horiek normalean oso argi izaten dute ikasteko behar hori. Ikasle horientzat, ikastea eta komunikatzeko gaitasuna hobetzea izaten dira helburu nagusiak, eta faktore horiek erabakigarriak izaten dira ikaslearen eta taldearen aurrerapenean.

Beste aldetik, derrigorrezko hezkuntzaren baitako AH eskolak izaten ditugu askotan, edo ikasle gazteak, atzerriko unibertsitate-ikasketen programaren batean egoteagatik joaten direnak AH eskolara. Egoera mota horretan (aurreko egoera batzuetan ere bai, alegia, ikasleek haien ikaskuntza beti presente duten egoeretan), ikasleak, ikasgelara joaten direnean, ez dira jabetzen ikasten ari diren hizkuntzako gaitasun desberdinetan daukaten mailaz. Bestela esanda, ez dira ohartzen dakitenaz, hizkuntza horretan egin dezaketenaz eta ezin dezaketenaz, edo behar, nahi edo ikasi dezaketenaz. Alderdi horiek ezagutzeak berekin dakar norbera, hizkuntza baten ikasle gisa, bere buruaz ohartzea eta, hasieran esan dugun bezala, hori ezinbestekoa da baldintza onetan ikasteko.

Adierazi bezala, irakasleok ikasgeletan lagun diezaiekegu ikasleei ohartze-lan hori egiten, modu honetara: ikasle bakoitzari hausnarketa egiten eta bere ikaskuntzaren agintea hartzen lagunduz. Galdera nagusia, artikulua honetan darabilguna, hauxe da: ea nola gauzatu eta hobetu dezakegun hori.

Ikaslearengan oinarritutako ikuspegiko beharrian nagusietako bat –AH irakasle guztiok modu teoriko edo praktikoagoan gogoan daukaguna–, honako hau da: ikasteko estrategiak garatu behar ditugula eta estrategia horien bidez ikasleek gai izan behar dutela ikasteak zer esan nahi duen ulertzeko eta beren ikaskuntzaz ohartzeko, bai testuinguru formaletan eta bai ez-formaletan. Horrez gain, estrategia horiek ikasgelara eraman behar ditugu, han landu behar ditugu eta daukaten garrantzia eman behar diegu ikaskuntza formalaren ikuspegitik ere bai.

Azken batean, ikasleak gidatu eta orientatu behar ditugu, haiek daukaten beharrianak identifikatu eta horiei erantzuten ikas dezaten, honelako estrategiak erabiliz: ikasgelan ikaskuntza informalarri buruz hausnartzea, komunikazioak egunerokotasunean dituen zailtasunak ikaskideekin eta irakaslearekin lantzea, ikasteko tresna, iturri eta aukerak bilatu eta aukeratzeko eta horiek denak ikaslea bere ikaskuntzaz nola ohartzen den ikusarazten eta sustatzen duen ingurune pertsonalean kudeatzea (adibidez web-orri batean, norbere ikas-alor batean, blog batean edo ikaskuntza-prozesuko portfolio batean).

It is about the real value of a real education, which has almost nothing to do with knowledge, and everything to do with simple awareness; awareness of what is so real and essential, so hidden in plain sight all around us, all the time, that we have to keep reminding ourselves over and over: "This is water." "This is water." (Foster Wallace, 2005, 9. or).

1. HAUSNARKETA ETA METAKOGNIZIOA ATZERRIKO HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZAN

80ko hamarkadan, metakognizioa aztertzen hasi ziren hizkuntzen irakaskuntzaren eremuan; hau da, pentsatzeko eta ikasteko daukagun moduari buruzko hausnarketarekin zerikusia duten ekintzak eta pentsamenduak aztertzen.

Wenden (1986) izan zen lehenetarikoa aztertzen hasi zena ikasleek nola ikasten duten haien ikaskuntza-prozesua egokitzen, plangintzaren, jarraipenaren, ebaluazioaren eta ikaskuntza-jarduerak berrikustearen bidez. Egile horren arabera, ikasleek planifika ditzakete egun jakin batean ikasiko dutenaren (aditz-formak, ortografia, gramatika) edo unitate nahiz ikasturte jakin batean zehar ikasiko dutenaren alderdiak eta, horrez gain, hausnarketa egin dezakete zeregin zehatz bat egiteko erabiliko dituzten estrategiei buruz. Helburuak eta strategiak aukeratu ondoren, ikasleek beren plangintza ebalua dezakete, helburuak, baliabideak eta aukeratutako strategiak berrikusiz.

AH bat ikasteko garaian, hainbat arrazoiengatik dira ezinbestekoak estrategia metakognitiboak. Esate baterako, hauengatik:

1. Ikasleak ohartzen dira estrategia bat aukeratu dutela, gero eraginkortasunez erabiltzeko; adibidez, ikaskuntza kontrolatzeko eta ebaluatzeko.
2. Ikasleek parte hartzen dute eta partaide sentitzen dira irakaskuntza orokorraren antolamendu eta plangintzan, bai eta zeregin espezifikoetan ere.
3. Ikasleek egokitu eta berrikusi egiten dute ikaskuntza-prozesuan duten jarduna. Oxford-en arabera (1990, 2013), autoerregulazioa ez da ikaskuntza autokudeatzea bakarrik. Beste hau ere bada: ikasleak bere beharrezanetara egokitzea strategiak.

2. NOLA SARTU HAUSNARKETA ETA ESTRATEGIA METAKOGNITIBOAK AH ESKOLAN?

Metakognizioa, ikasketari buruzko hausnarketa kontzientea, funtsezko elementutzat jotzen da ikaskuntza hobetzeko. Baina, hala ere, horren irakaskuntza AH eskolan sartzeko garaian, galdera hauek sortzen dira:

- Nola irakatsi behar dira strategiak?
- Egoera horietan zer-nolako garrantzia dute irakasleak eta ikasleak?

Gai horiek landuko ditugu ondorengo lerroetan.

2.1. ESTRATEGIA METAKOGNITIBOAK IRAKASTEA HIZKUNTZA IKASTEKO ESKOLAN

Oxford-ek (1990) dio estrategien irakaskuntzak lau helburu dituela:

- a. Hizkuntzen ikaskuntzak zentzu gehiago izatea ikasleentzat.
- b. Irakasle eta ikasleen arteko lankidetzak bultzatzea.
- c. Ikasleei ikasteko aukerak identifikatzen laguntzea.
- d. Ikaskuntza eta ikasleen autonomia garatzen laguntzen duten estrategien erabilera erraztea.

Cohen-en iritziz (2011), helburu horiek helburu bakar batean laburbildu daitezke: ikasleak gehiago ohartzea ikaskuntzaz eta gehiago hausnartzea, eta ikasleen autonomia garatzen laguntzea.

AH curriculumean ikasteko estrategien ikaskuntza txertatzeari dagokionez, Cohen-ek (2011) hainbat aukera proposatzen ditu, eta nabarmentzen du aldi berean irakatsi behar direla strategiak eta meta hizkuntza. Egile horren iritziz, estrategiei buruzko eztabaida modu esplizituan nahiz implizituan egin behar da, ikasgelako ohiko zereginen barruan. Nogueroles-ek (2012) irakaslearen rolari ematen dio garrantzia gai horretan, eta proposatzen du estrategien irakaskuntza irakaslearen zuzendaritzapean egotea, irakaskuntza hori ere eskolen curriculumean sartuta dagoelarik. Tutoreak adierazi behar die ikasleei zer helburu duen estrategien irakaskuntzak, zergatik egingo den jarduera jakin bat eta zer lortu nahi den horrekin.

Estrategien irakaskuntza curriculumean txertatzeko proposamenak bat datoz hiru fasetan banatzen den ikuspegi bat proposatzearekin. Hona hemen fase horiek:

- a. Ikasleekin batera hausnartzea ikasteko estrategien inguruan, horrek duen balioaz kontzientziatzea eta zereginak planifikatzea.
- b. Ikasleekin batera egitea estrategien erabilera kontzientea gaitzat duten jarduerak
- c. Jarduera horien eraginkortasunari buruzko hausnarketa egitea.

2.2. IRAKASLEAREN ROLA, AH ESKOLAN IKASTEKO ESTRATEGIAK TXERTATZEKO GARAIAK

Ikasteko estrategiak eskolan modu esplizituan eta inplizituan irakasteari buruz hitz egin dugu, betiere irakaskuntza hori curriculumaren barruan sartuta dagoelarik eta ikaskuntzan oinarritzen delarik. Estrategia horiek irakasteko, irakasleak rol jakin batzuk hartu behar ditu ikasgelan; irakaslearen lana ez da hizkuntza bat irakastea, nola ikasten den irakastea baizik.

Cohen-en ustez (2011), irakaslea laguntzaile bat da ikaslearen ikaste-prozesuan, ikaslearen oinarritutako didaktika zabaltzen laguntzen duen norbait, ikasleak bere autonomia gara dezan eta bere ikaskuntzaren kontrola eta erantzukizuna har dezan. Ikaskuntzaren erantzukizuna partekatua da, eta, ikasgela-testuinguru horretan, irakasleek haiengan hartu behar dituzten zereginak zehazten ditu egile horrek. Hiru zeregin nabarmenduko ditugu:

- a. Irakasleak ikaslearen hausnarketaren katalizatzailea izan behar du, ikasleari bere ikasketaz ohartzen lagundu behar dio.
- b. Irakaslearen lana ikaskuntza erraztea denez, ikasteko estrategiak erabiltzen irakasten die ikasleei, modu esplizitu edo inplizituan.
- c. Ikasleekin enpatia izatea garrantzitsua da ikasleek aurre egin beharreko zailtasunak eta erronkak ulertzeko. Lagungarria izan daiteke AH irakasleak aldi berean atzerriko beste hizkuntza bateko ikasle izatea.

Monereo-k (1995), bestalde, oinarritzko hiru printzipio iradokitzen ditu metakognizioan oinarritutako irakaskuntzarako:

- a. Ikasleei erakustea hizkuntza baten ikasle gisa haien burua hobeto ezagutzen; hau da, alde batetik, ikasketaren prozesuarekin identifikatzeko helburuz ikasten ari direnean izaten dituzten beharrezkoak, arazo, trebezia, erronka eta lehentasunak identifikatzea, espero dutenaren eta emaitzen artean lotura hobe lortzeko, eta, bestetik, ikaskuntza-zereginak haien beharrezkoak egokitzeko aukera izan eta ikasle gisa haien identitate propioa eraiki dezaten.
- b. Ikasleei haien ikaskuntza propioari buruzko hausnarketa egiten erakustea: zeregin bat gauzatzeko egiten dituzten jardueren plangintza, jarraipen eta ebaluazioan zehar hartzen dituzten erabakiak aztertzea.
- c. Ikasleei erakustea ikasten ari direnean beren buruarekin elkarrizketa kontziente bat edukitzen.

Idea horiek kontuan hartuta, artikuluko bigarren zatian lau proposamen praktikoko proposatuko ditugu, hizkuntza bat ikasten ari direnek ikasten ari direnaren inguruko hausnarketa egin dezaten, ikaskuntzaren agintea har dezaten eta norberaren ikaskuntza-ibilbidea antola dezaten.

Itzultzailea: IVAPeko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Bibliografia

- Cohen, A. (2011). *Strategies in Learning and Using a Second Language*. Harlow: Pearson Education.
- Foster Wallace, D. (2005). *This Is Water: Some Thoughts, Delivered on a Significant Occasion, about Living a Compassionate Life (transcription of the Kenyon Commencement Address)*. Hemendik berreskuratua: http://web.archive.org/web/20080213082423/http://www.marginalia.org/dfw_kenyon_commcement.html
- Monereo C. (1995). Enseñar a conciencia ¿Hacia una didáctica metacognitiva? *Aula de Innovación Educativa* 34. Hemendik berreskuratua <http://www.grao.com/revistas/aula/034-la-calculadora-en-la-clase-de-matematicas--proyectos-de-formacion-de-centros/ensenar-a-conciencia>
- Oxford, R. (1990). *Language Learning Strategies*. New York: Newbury House.
- Oxford, R. (Ed.) (2013). *Teaching & Researching: Language Learning Strategies*. New York: Routledge.
- Torres (2015). *Estrategias metacognitivas de gestión del aprendizaje a través de los PLE (Entornos Personales de Aprendizaje) de aprendientes de ELE*. [Doktore-tesia]. Universitat de Barcelona. Hemendik berreskuratua: http://www.tesisenred.net/bitstream/handle/10803/399453/LTR_TESIS.pdf?sequence=1&isAllowed=y .